



VITORIA-GASTEIZKO INGENIARITZA ESKOLAKO BULETINA

INFORMAZIO-BULETINA 102. zk. 2019ko MAIATZA

Buletin honek erabiltzen duen hizkera EZ da sexista

(<http://www.ehu.eus/es/web/berdintasuna-direccionparalaigualdadehu.es>)

Titulazioen sustapena

1. Orientazio Azokak
2. Ateak zabaltzeko jardunaldiak
3. Master Eguna
4. Hamaiketakoak Ingeniaritzarekin.
5. Batxilergoko eta Heziketa Zikloetako ikasleen bisita

Akademia antolakuntza

1. 2017/18ko graduondoko espediente onenen aitortpena.

Bisitak

1. Santiago de Chileko Unibertsitatearen bisita
2. Europako Espazio Agentziara (ESA) bisita
3. Smart Cities 2019
4. Wind Europe 2019 Europako Azoka Eolikora bisita
5. Irakaskuntza helburuetara mugikortasunerako ERASMUS programa:
Rzeszów University of Technology, Poland.

Hainbat jarduera

1. Eskolaren 60. urteurrena
2. Cadena SER
3. Berrikuntza Estrategikoko Joerei buruzko ikastaroa
4. Sagardotegia
5. Eskolaren izen aldaketa.
6. Diario de Noticias de Álava
7. Martxoaren 8a

Titulazioen sustapena

1. Orientazio Azokak

Donostia-Gasteiz-Bilbo:

Otsailaren 2an, 2019ko Unibertsitateko Orientazio Azoka egin zen Farmazia Fakultatean.

UPV/EHUko Unibertsitateko Orientazio Azokak unibertsitateko hiru campusetan egiten dira, hiru larunbatetan, jarraian. Gipuzkoatik eta Arabatik pasa eta gero, Bizkaiko Campusean egin zen azkena, otsailaren 9an (larunbata), Ekonomia eta Enpresa Fakultatean eta Bizkaia Aretoan.

Orientazio Azokek aukera ematen diete etorkizuneko ikasleei UPV/EHUren graduiko ikasketak gertutik ezagutzeko eta unibertsitatara sartzeko prozedura osoaren berri izateko.



Miranda de Ebro:

Otsailaren 21ean, Miranda de Ebro Expouniversitas SSCRen XII. Edizioan parte hartu zuen Eskolak.

Ikasleentzako orientazio azoka horretan 35 erakusmahai egon ziren, eta hor egon ziren besteak beste Eskolako ordezkari gisa Ruber Delgado eta Jose Antonio Ramos.

400 ikasle baino gehiagok bisitatu zuten azoka, eta gradu hauek ezagutu ahal izan zituzten: Automobilgintzaren Ingeniaritza, Industria Elektronikaren eta Automatikaren Ingeniaritza, Kudeaketaren eta Informazio Sistemen Informatikaren Ingeniaritza, Ingeniaritza Mekanikoa eta Industria Kimikaren Ingeniaritza. Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako eta Kudeaketaren eta Informazio Sistemen Informatikaren

Ingeniaritzako gradu bikoitzak ere ezagutu zituzten, bai eta Ingeniaritza Mekanikoko eta Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako gradu bikoitza ere.

Bigarren Hezkuntzako eta Goi Mailako Zikloetako ikasleak Miranda Ebrotik ez ezik, inguruko beste hainbat herritatik etorri ziren (Villarcayo, Medina de Pomar, Villasana, Briviesca...), eta arreta eta interes handia erakutsi zuten.

Ekitaldia Sagrados Corazones ikastetxeko klaustroan egin zen, eta helburu zuen inguruko Batxilergoko ikasleei orientazioa eskaintzea eta ikasleek eta beren familiek unibertsitateak eta lanbide heziketako ikastetxeak ezagutzea.

2. Ateak zabaltzeko eguna

Martxoaren 22tik 30era, Eskolako ateak zabaltzeko eguna egin zen. Iaz bezala ostiral arratsaldean egin zen jardunaldi bat, interesa zuten ikasleen gurasoek ere etortzeko aukera izan zezaten. Egun hartan aise gainditu ziren espero zen jende kopurua: 220 pertsona izan genituen, 14 laborategi bisitatu zituzten, eta 41 irakasle eta ikertzailek, 5AZPko langilek eta 14 ikaslek parte hartu zuten.

Hori dela eta, eskerrak eman nahi dizkizuegu zuen ilusioagatik, ulermenagatik eta laborategietan eskuragarri dagoen ekipamenduaren ezaugarriak erakutsi eta azaltzeagatik. Eskerrik asko zuen laguntzagatik.

Eskerrik asko gure titulazioak eta Eskolan ematen den prestakuntzaren kalitatea gizarteari helarazteko borrokatzen jarraitzeagatik.

3. Master Eguna

Gasteizko Ingeniaritza Eskolako Master egunean, 22 masterreko arduradunek beren programak aurkeztu zituzten 15 minutuan. Jarduera ikasle guztientzat eta interesa zuten guztientzat izan zen, zeintzuek aukera izan baitzuten graduondokoa aukeratzeko orduan zituzten zalantzak argitzeko.

4. Hamaiketakoak Ingeniaritzarekin.

Sagrado Corazón Carmelitas eta San Viator ikastetxeetako Batxilergo Teknologikoko ikasleek "Hamaiketakoak Ingeniaritzarekin" izeneko bi jardunaldi partekatu zituzten gurekin.

Gasteizko Ingeniaritza Eskolako gure ikertzaileek egiten ari garen ikerketa garrantzitsuenetan izan dituzten esperientziak eta estrategiak azaldu zituzten. Zientzia, teknologia eta etorkizuneko ikasleak mahai baten bueltan.



5. Batxilergoko eta Heziketa Zikloetako ikasleen bisita

Urtarrilaren 23an (asteazkena), Gasteizko Sagrado Corazón Carmelitas ikastetxeko 10 ikaslek bisitatu gintuzten. Otsailaren 19an (asteartea), Gasteizko Urkide ikastetxekoen txanda izan zen, eta martxoan Gasteizko ikastetxe hauek etorri zitzaizkigun: EGIBIDE, Lakua BHI eta Sagrado Corazón Corazonistas ikastetxea.

Urtarrilean eta otsailean, ikastetxe hauek egin ziguten bisita: San Prudencio Ikastetxea, Miguel de Unamuno BHI (biak Gasteizkoak) eta Azkoitia BHI.

Jardunaldiak

Akademia antolakuntza

1. 2017/18ko graduondoko espediente onenen aitortpena.

Apirilaren 4an, aprobetxatuz Bizkaia Aretoan Mater Eguna egingo dela aurreko ikasturteko master bakoitzean espediente akademikorik onena izan zuten ikasleei aitortpen bat egiteko ekitaldia egin zen, eta diploma bat eta opari bat eman zitzaien.

Gure kasuan, Estela Mendozarena izan zen espedienterik onena, Geoinformazioaren Analisia Unibertsitateko Espezialista berezko tituluagatik.
Zorionak, Estela!



Bisitak

1. Santiago de Chileko Unibertsitatearen bisita.

Urtarrilaren 28tik otsailaren 4ra, Txileko Unibertsitateko ikasle batzuek Eskola bisitatu zuten, eta hainbat irteera egin zituzten gure lurrak eta kultura ezagutzeko.

2. Europako Espazio Agentziara (ESA) bisita

Urtarrilaren 31n, zenbait ikaslek eta irakaslek Europako Espazio Agentzia (ESA) bisitatu genuen Madrilen, eta industria aeroespazialeko azken aurrerapenak erakutsi zizkiguten.



3. Smart Cities 2019

Martxo amaieran, Industria Elektronikaren eta Automatikaren Ingeniaritzako Graduko 6 ikaslek Belgikako Smart Cities konferentzian partehartu zuten Isidro Calvo irakaslearekin batera. Ikasle horietatik bostek gure eskolak emandako diru-laguntzei esker egin izan zuten hori.

Ikasleek hainbat hitzaldiz gozatu zuten, eta azpimarratzekoak izan ziren, besteak beste, gidatze autonomoari eta adimen artifizialari buruzkoak. Hala, aukera izan zuten beste herrialde bat eta beste kultura bat ezagutzeko eta Belgikako eta Italiako parte hartzaileekin iritziak trukatzeko.



- 4. Wind Europe 2019 Europako Azoka Eolikora bisita**
Ingeniaritza Mekanikoko hirugarren mailako gure ikasleek Wind Europe 2019 Europako Azoka Eolikoa bisitatu zuten, apirilaren 4an, BECen.



- 5. Irakaskuntza helburuetara mugikortasunerako ERASMUS programa: Rzeszów University of Technology, Poland.**

Apirilaren 9tik 12ra, Rzeszówko Unibertsitate Teknologikoko Ingeniaritza Mekanikoko eta Aeronatukoko Fakultateko Przemysław Podulka irakasleak bisitatu gintuen, irakaskuntza helburuetarako mugikortasunerako ERASMUS programaren barruan. Kalkuluko hainbat eskola eman zituen,

eta ikasleek Poloniako ERASMUS programari buruz egin zizkioten galderei erantzun zien.

Hainbat jarduera

1. Eskolaren 60. urteurrena

Otsailaren 22an, gure eskolaren 60. urteurrena ospatu genuen. Ekitaldi xumea izan zen, baina oso hunkigarria; izan ere, omenaldia egin zitzaien Ingeniaritza Eskolako ikasle, irakasle eta zuzendari ohiei. Horrez gain, Eskolako abesbatzaren emanaldia ere izan zen. Eskolak lunch bat eskaini zuen, eta bertan dozenaka pasadizo eta oroitzapen konpartitu genituen.

60. urteurrena zela eta, Cadena SER irratiak programa bat eman zuen zuzenean eskolatik: gure zuzendari Xabi Sancho eta bi ikasle ohi elkarriketatu zituen: Luis Mari Gándara (lehenengo promoziokoa) eta Maite Martínez de Lagos (ikastegian titulua lortu zuen lehen emakumea).

Baietz beste 60!



2. Cadena SER

Unai Fernández eta Iñigo Aramendi kideak beren lanarekin asko gozatzen duten horietakoak dira, beren lanaren zale amorratuak. Otsailaren 5ean, Cadena SERek gonbidatu zituen, Gasteizko Ingeniaritza Eskolan ikertzen ari diren proiektuez hitz egiteko.



3. Berrikuntza Estrategikoko Joerei buruzko ikastaroa

Urtarrilean eta otsailean, Innovideko Sergio Gonzálezek berrikuntza estrategikoko joerei buruzko ikastaro bat eman zuen. Denera, 14 pertsonak parte hartu genuen: zuzendaritza taldeko kideek, irakasleek eta administrazio eta zerbitzuetako langileek.

4. Sagardotegia

Otsailaren 8an, zuzendaritza taldeko kideek, irakasleek eta administrazio eta zerbitzuetako langileek afari bat egin genuen Aramaioko Iturrieta sagardotegian.

5. Eskolaren izen aldaketa.

Otsailaren 16an, eta 31n (akatsen zuzenketa), Eskolaren izen barria argitaratu zen EHAAn. Orain arte, gure fakultatearen izenean "Unibertsitate" izena mantentzen zen.

Orain, graduak ezarri direnez, izen berria har dezakegu, gure eskolako irakasle doktoreek eta ikertzaileek bermatutakoa: Gasteizko Ingeniaritza Eskola.

6. Diario de Noticias de Álava

2019ko apirilaren 11n (ostirala), Diario de Noticias de Álavak "LIBRES para ser Ingenieras" izeneko artikulua argitaratu zen. Artikulu horretan, Eskolan titulua lortu zuen lehen emakumeak, Maite Martinez de Lagosek, gure ikasle ohi Sonia Martinek eta gure ikasle Jone Ibañezek emakumeek Ingeniaritzaren munduan duten egoera aztertu zuen. Hemen duzue gure Eskolan egindako elkarriketaren argazki bat.



7. Martxoaren 8a

Eskolako berdintasun batzordeak egitasmo polit bat antolatu zuen martxoaren 8an, emakumeen eguna dela eta. Irudietan ikus daitekeen moduan, bufanda bat egin zitzaion Eskolaren atzeko atean dagoen "Gordo"ren irudiari. Horretarako, 20x20cm-ko puntuzko karratu lila eta moreak erabili ziren. Zuzendaritza taldeko kideek, irakasleek eta administrazio eta zerbitzueta langileek egin zituzten, eta gero elkartu egin zituzten bufanda egiteko.

Azkenik, martxoaren 8an, Eskolako langile emakume guztiak elkartu ginen, "Gordo" janzteko eta egun garrantzitsu horretan gure babesa adierazteko.



